

# Argitalpenak

## Diskoteka

IKER BARANDIARAN

### Rock urbanoaren lau zaldunak

Mozkorraldian sortutako izena duen taldeak rock-and-rolla egiten du lehenengo lanaren izenburuak argi eta garbi erakusten duen moduan. Hernaniko laukote honek inguruari edo gaur egun gehiengoak egiten duenari jaramonik egin gabe, beraien apustua egin dute. Betiko rocka egiten dute, rock urbano deritzona, eta gaztelaniaz abesten diote rock-and-rollari, maitasunari, beti ondoan izan duten lagunari, parrandari, bizitzeko erari zein gertuko eta urruneko bidegabekeriei. Beraien jomuga Platero y Tú taldea da, baina hitz maltzurrenatan Extremoduroko Roberen ukitua antzematen da. Soloetan aberatsa da diskoa, eta heavy edota hard-rock klasikoenera –Thin Lizzy kasu– keinu asko egin dizkiote. Egia esan, Bilbokoak balira berezkoagoa egingo litzaidake egiten dutena, baina ze arraio, beraien aukera da.



Que suene el  
Rock'n'Roll  
The Zepto

AUTOEKOIZPENA

Iraupena: 28'44"  
5 euro

THE ZEPO

### «Euskara fonetikoki aberatsagoa da, baina guk nahiago dugu gaztelaniaz abestea; eta ez da gehiago saltzeko»

Rock-and-rollera desagertzeaz dago? Taldeek sofistikatora jotzen dute?

Betiko rocka hor egongo da beti. Baina askok diote rocka egiten dutela eta emaitza entzunda ez nuke esango hori rocka soilik denik. Bestalde, ona da estiloak nahastea eta aberastea, baina guk nahiago dugu eskema tipikoa: soloak, duoak eta abar.

Jarraitzaile asko dituzue Hernanin? *Berriaren Matraka* gehigarriko Erokrazia zerrendan aurrenak zaudete, jendearen botoei esker...

Bai, egia da. Lagun asko ditugu eta jarraitzaileak ere bai. Baina, agian, lehenak egotearen arrazoia da gure webgunean Erokraziarako lotura daukagula. Horri batu beharko zaio, gaztelaniaz abesten dugunez, badagoela jendea *Matraka* irakurri gabe bozkatzera sartzen dena.

"Garagardoarekin dutxatu eta nahi dudak guztia edaten dut. Eta lurrean dauden loreak ere erretzen ditut...". Rock-and-Rollak hain bizitza mota golfoa darama berarekin?

Gauetz ibiltzea, alkohola

edatea, erretzea, kalamua... gazte askoren bizitzan daude, eta baita gurean ere. Ez gara golfo bakarrak. Gure kasuan rocka gure salbazioa da, gure bidea.

Askotan justifikatu beharra daukazue gaztelaniaz abestea aukeratu izana?

Beno, askotan galdetzen digute ea zergatik ez dugun euskaraz abesten. Seguruenik ingelesez abestuko bage-nu, ez ziguten ezer esango. Guk oso argi daukagu hemengoak garela eta guk euskaraz hitz egiten dugu, baina gehien gustatzen zaizkigun taldeak rock urbanoa deritzona egiten dutenak dira. Gainera, euskara fonetikoki aberatsagoa da, baina guk nahiago dugu gaztelaniaz abestea; eta ez da gehiago saltzeko.

"Umeak ginenean beste zerbaitekin amets egiten genuen, amestea delitua ez zenean...". Dagoeneko amets egitea ere delitu bihurtu da?

Neurri batean bai. Normalean ez dugu salaketa edo politika daukaten hitzik idazten, baina halabeharrez euskaldunak gara eta hori da bizi duguna.

